



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

# **EUSKARAREN III. PLAN GIDARIA 2018-2022**

[www.ehu.eus](http://www.ehu.eus)





# Aurkibidea

<b>1. Aurkezpena</b> .....	<b>5</b>
<b>2. UPV/EHUko Euskararen II. Plan Gidariaren (2013-2017) ebaluazioa</b> .....	<b>7</b>
<b>3. Euskararen egoeraren diagnostikoa Euskal Herriko Unibertsitatean</b> .....	<b>9</b>
3.1. Barne Diagnostia .....	9
3.2. Kanpo Diagnostia .....	10
<b>4. Euskararen III. Plan Gidariaren (2018-2022) ardatz estrategikoak</b> .....	<b>11</b>
4.1. I. Ardatza: Euskararen erabilera, presentzia eta kudeaketa .....	11
4.2. II. Ardatza: Formazioa .....	12
4.3. III. Ardatza: Corpus linguistikoaren plangintza .....	14
4.4. IV. Ardatza: Ikerketa eta hedakuntza .....	16
4.5. V. Ardatza: Pertsonala .....	18
<b>5. Euskararen III. Plan Gidariaren (2018-2022) ebaluazioa</b> .....	<b>22</b>
5.1. Adierazle orokorrak .....	22
5.2. Graduko euskarazko irakas-eskaintza .....	24
<b>6. Euskararen III. Plan Gidariaren (2018-2022) garapenerako finantzaketa</b> .....	<b>29</b>
<b>I. Eranskina</b>	
Euskarazko administrazio-atalak .....	30
Administrazio-atal elebidunak .....	31
Administrazioko beste unitate batzuk .....	33
<b>II. Eranskina</b>	
Hizkuntza eskakizunaren aldaketa proposatzen diren lanpostu ez bakanteak .....	35
<b>III. Eranskina</b>	
Derrigortasun datarik gabeko lanpostu ez bakanteak .....	36



# 1.

## Aurkezpena

Honako hau dago jasota Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU) Estatutueto lehen artikuluan: *UPV/EHU zuzenbide publikoko erakundea da, gizartearen zerbitzura dagoena. (...) Goi mailako irakaskuntza eskaintzen du, bere eskumenen eremuan, honako hauen bitartez: irakaskuntza, ikerketa, ikasketa, kultura eta unibertsitate hedakuntza, eta bere jardueren oinarri diren kudeaketa prozesuak eta zerbitzuak. UPV/EHUk bere gain hartzen du zerbitzu horien kalitatea eta bikaintasuna bermatzeko konpromisoa. (...) Kultura eta zientzia unibertsalaren jakintza ere zabalduko du gizartean, eta euskara eta euskal kultura bultzatuko ditu bereziki.*

Horrenbestez, Euskararen III. Plan Gidari hau kokatzen da euskara normalizatzeko UPV/EHU sorreratik egiten ari den bidean; izan ere, erakundearen Estatutueto lehen artikulua horretan esaten den gisan, helburu ditu, besteak beste, kalitatezko goi mailako irakaskuntza eskaintzea, bai eta euskara eta euskal kultura sustatzea ere. Euskararen normalizazioa sustatzeko xede hori hainbat aldiz agertzen da Estatutu horietan. Hasteko, 4. artikuluan, helburuei buruzko atalean, honako hau dago jasota: *euskararen garapena eta normalizazioa indartzea, bere eskumenen eremuan.*

Horrez gainera, Estatutu horietako 8. artikuluko 3. puntuan esaten da erakundeak neurriak hartuko dituela euskararen erabilera normalizatzeko unibertsitateko irakaskuntzan, ikerketa zientifikoan eta administrazioaren eta zerbitzuen alorreko jardueran. Ikerketa eta horren dibulgazioari dagokionez, 91. artikuluko 4. puntuak dio *UPV/EHUk euskararen erabilera bultzatuko duela ikerlanetan eta zabalduko zientifiko, tekniko, humanistiko eta artistikoan.*

Estatutu horietako 115. artikuluko arabera, bestalde, *UPV/EHUk euskararen erabilera normaldua bultzatuko du, eta unibertsitateko hideek hizkuntza hori ikasi eta eguneratu dezatela sustatuko, horretarako izango dituen planen arabera.* Azkenik, 116. artikuluan honako eskubide hauek aitortzen zaizkie Unibertsitateko kideei:

- a. *Hizkuntza ofizialetako edozeinetan jardutea.*
- b. *Hizkuntza ofizialetako edozeinetan izatea harremanak UPV/EHUko organoekin.*
- c. *Irakaskuntzako programazioan zehaztutakoaren arabera aukeratutako hizkuntza ofizialean ikastea eta ebaluazio probak hizkuntza horretan egitea.*
- d. *Ikerlanak hizkuntza ofizialetako edozeinetan egin, argitaratu eta defendatzea.*

UPV/EHUko III. Plan Gidariak, aurretik aipaturiko UPV/EHUko Estatutueto oinarritzeaz gain, honako lege hauek hartu behar ditu kontuan:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomi Estatutua (1979).  
<https://www.boe.es/buscar/pdf/1979/BOE-A-1979-30177-consolidado.pdf>
- Euskararen Erabilera Arautzeko Oinarritzko Legea (10/1982).  
[https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/1982/12/s82\\_0160.pdf](https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/1982/12/s82_0160.pdf)
- Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen 86/1997 Dekretua; izan ere, Dekretu honek 1982ko lege hori arautzen du, eta 2. artikuluko f) letran ezartzen du Euskal Herriko

Unibertsitateko administrazio eta zerbitzuetan diharduten langileak esparru honen barruan daudela. [www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/1997/04/9701956e.shtml](http://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/1997/04/9701956e.shtml)

- Euskal Unibertsitate Sistemaren Legea (3/2004) [http://www.legegunea.euskadi.eus/x59-preview/eu/contenidos/ley/bopv200401349/eu\\_def/index.shtml](http://www.legegunea.euskadi.eus/x59-preview/eu/contenidos/ley/bopv200401349/eu_def/index.shtml)

Azken horrek, bere bigarren artikuluan, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateak euskararen erabilera sustatzera bultzatzen ditu: «(...) irakaskuntza, iherketa eta ekimen kulturalak koordinatuz (...), eta aipatutako unibertsitate-erakundeetako ikasle zein irakasleen arteko mugikortasunaren bidez (...)».

UPV/EHUko Euskararen III. Plan Gidariaren diseinurako, onartu berri den UPV/EHUko 2018-2021 Plan Estrategikoa oinarritzakoa izan da. Era berean, aurreko euskara planak ere (1990eko eta 1999ko Euskararen Erabileraren Normalizaziorako Planak, 2007/08-2011/12 Euskararen Plan Gidaria eta haren luzapen-egokitzapena eta 2013-17 Euskararen II. Plan Gidaria) kontuan izan dira. Alde horretatik, 2007/08-2011/12 Plan Gidarian esaten zen bezala, *plan berriak ezin du izan xehetasunez josiriko dokumentu itxia; bada, malgutasuna izan behar du datozen urteetan sortuko diren egoerei zentzuz eta tentuz erantzuteko*, baina dokumentu itxia ez izan arren, argi dago hainbat eremutan Unibertsitateak aurrera egin duela, bai eta euskararen presentziak ere eta, beraz, plangintzaldi berrirako helburu konkretuak ere zehaztu behar direla.

Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen 1997ko apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan oinarrituz, UPV/EHUko plan berri honek herri administrazioetako VI. Plangintzarekin bat eginez, 2018-2022 indarraldia izango du. Aipatu Dekretuaz gain Plan Gidari berriko V. ardatza osatzeko ondorengo dokumentuak izan dira oinarria. Batetik, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 2018ko martxoan aurkezturiko *Euskararen erabileraren normalizazioa herri administrazioetan. V. plangintzaldiaren (2013-2017) Ebaluazio txostena* izeneko dokumentua. Eta bestetik, VI. Plangintzaldiari begira, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 2017ko abenduan eta 2018ko urtarrilean argitaratu zituen bi dokumentuak. Lehena, *Hizkuntza-eskakizunak esleitzeko proposamena* (HAKOBak onetsia) eta bigarrena, *Eusko Jaurlaritzan euskararen erabilera normalizatzeko irizpide orokorrak eta plan nagusia*.

Euskara Sustatzeko Ekintza Planari (ESEP) dagokionez, bertan esaten da, euskararen normalizazio bidean, etorkizuneko erronka nagusia hizkuntzaren erabilera dela eta horretarako euskararen hiztun elkartearen kohesioa areagotzeko ekimen eraginkorrak bultzatuko direla. ESEPEk esaten duena bat dator UPV/EHUk plan berrian zehazten dituen helburu estrategikoekin. Hain zuzen ere, irakaskuntza da ESEPEko ekintza planaren zehar-lerro edo esparruetako bat, eta euskarazko ikasketen eskaintza sendotzea ekintzetako bat. Unibertsitateari lotuta hiru puntu hauek jasotzen dira:

- *Graduko ikasketetan, hautazko irakasgaiak euskaraz egiteko aukera zabaltzea, betiere eskaintzaren bikoiztasunak saihestuz.*
- *Gradu-ondoko eskaintzetan euskararen presentzia ziurtatzea.*
- *Unibertsitatean euskarazko ikasketak indartzea, irakasleen prestakuntza hobetuz eta ikasmaterialak eskainiz.*

Gainera, Eusko Jaurlaritzak berriki adostu duen *Euskararen Agenda Estrategikoa 2017-2020* dokumentuan aipatzen diren unibertsitateekin erlazionatutako ekintzak ere aintzat hartu ditugu plan berrian. Zehazki, bi ekintza hauek:

- *Interneten eta tresna digitaletan euskarazko edukiak sortzea eta sartzea bultzatu, unibertsitateekin...*
- *Euskara eta euskal kultura ardatz duen hezkuntza-sistema eleaniztun bati lotutako hezkuntza-proposamena koordinatu eta garatu dezala (...) unibertsitate-mailako diru publikoaz finantzatutako irakaskuntza-zentroetan...*



## 2.

### UPV/EHUko Euskararen II. Plan Gidariaren (2013-2017) ebaluazioa

Euskararen II. Plan Gidariak bost urteko indarraldia izan du, 2013ko urtarrilaren 1etik 2017ko abenduaren 31 arte. Planean azaltzen den bezala, planaren erdialdean tarteko balorazioa egin zen eta planaren bukaeran azken ebaluazioa.

UPV/EHUko II. Plan Gidariaren tarteko eta bukaerako ebaluazio txostenak UPV/EHUko web orrialdean daude argitaratuta (<https://www.ehu.es/eu/web/euskara/plan-gidaria-2013-2017>).

UPV/EHU Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitate publikoa da, eta Euskal Herriko errealitate soziolinguistikoari lotua dago. Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonalari dagokionez, Azken hiru hamarkadetan hobetu egin da euskara ezagutzen duten langileen kopurua abian jarri diren hizkuntza-politiken eraginez. Euskal Herriko Unibertsitateko langileak prestatuta daude, neurri batean edo bestean, euskaraz lan egiteko. Aldaketa horren oinarria izan da 1997ko apirilaren 15eko 86/1997 Dekretua.

Ehunka dira euskara ikasi duten UPV/EHUko langileak, euskaraz hezi direnak eta euskaraz lan egiten dutenak. Hala ere, aurrerabide horiek guztiek ez dute herritarren hizkuntza-eskubideen erabateko bermea ekarri eta, aipatu dekretua martxan jarri zenetik bi hamarkada pasatu diren arren, gaur egun zenbait kasutan hobetu beharra dago.

Unibertsitatera ikastera etortzeko adinean dauden gazteen jaitsiera demografikoa nabaria bada ere, bai Unibertsitatera Sartzeko Ebaluazioa euskaraz egitea erabakitzen duten ikasleen ehunekoan, zein unibertsitateko graduatan euskarazko matrikulazioaren ehunekoan goranzko bilakaera nabaria da.

Ikasle kopuruaz gain, euskaraz irakasteko ahalmenarekin oso loturik dago Unibertsitatearen irakas-eskaintza. Irakasle-ikertzaile lanpostuen kasuan, jarraitu den kontratazio politikari esker, euskara eskakizuna duten irakasle-ikertzaile lanpostuen ehunekoa nabarmen igo da. Bestalde, graduondoko formazioaren euskarazko eskaintzak lan-munduaren euskalduntzeari ekarpen garrantzitsua egiten dio. Graduondokoetan lanerako eskuduntza ematen duten master ofizialen euskalduntzea da lehentasuna eta gainerako masterretan euskarazko eskaintza ahula da. Era berean, graduondoko berezko tituluetan euskarazko eskaintza handitzeko aukera gehiago ikusten dira.

Goi-mailako kalitatezko euskarazko irakaskuntza eskaintzeaz gain, UPV/EHUren betebeharra da ikerketaren eta unibertsitate hedakuntzaren arloan euskara sustatzea. UPV/EHUK euskarazko tesiak bultzatzeko ahalegin handia egiten du eta horren adibide dira azken lau ikasturteetan euskaraz burutu diren 186 tesiak. Gainera, Euskarazko aldizkari zientifikoetan argitaratutako artikulu kopurua nabarmen igo da eta *Open Journal System* plataformaren bidez aldizkari horien prozesu editorial profesionalagoa lortu da. Era berean, euskaraz egindako ikerketaren eta zientziaren dibulgazioaren oihartzuna handitzeko bidean aurrerapausoak eman dira eta eraginkorrak diren ekintzak egonkortu dira.

Unibertsitatearen betebeharrak diren arlo hauek guztiak ezinezkoak lirateke euskaraz burutu ahal izatea, atzetik corpus linguistikoaren plangintza sendo bat ez balego. Ezin dezakegu ahaztu ikasmaterialen eta hizkuntza baliabideen kopuruan zein kalitatean maila oso altua lortu dela eta UPV/EHU euskal gizartearentzat erreferentzia nagusia bihurtu dela arlo honetan.

UPV/EHUK, sortu zenetik, unibertsitate mailako euskararen normalizazioan eta goi-mailako profesional euskaldunen formazioan ahalegin garrantzitsu eta adierazgarriak egin ditu. Era berean, UPV/EHUk euskararen erabilera aktibatzeke hainbat estrategia jarri dira martxan azken urteetan. Esate baterako, 2017-18 ikasturtean *Aktibatu* programa jarri zen martxan. Bertan, hizkuntza-ohituren aldaketarako estrategiak garatzen dira, euskararekiko erantzukizunaren eta jokabideen hausnarketa bultzatzen da eta, taldean lan eginez, euskara erabiltzeko testuinguru eta egoera berriak eta abegikorragoak sortzen dira.



# 3.

## Euskararen egoeraren diagnostikoa Euskal Herriko Unibertsitatean

2013-2017 eperako Euskararen II. Plan Gidariaren ebaluazioa abiapuntu harturik, euskarak gaur egun UPV/EHUn bizi duen egoeraren barne eta kanpoko diagnostia erakutsi nahi da ondoren.

Diagnostia egiteko, AMIA analisia erabili da euskarari kritiko zaizkion alderdi estrategikoak identifikatu, indar - guneak egonkortu, ahultasunak zuzendu eta mehatxuei aurre egingo bazaizkie, unean une sortuko diren aukerak aprobetxatuz.

### 3.1. Barne diagnostia

#### Ahuleziak

1. Euskarazko hautazko irakasgaien eskaintza gehitzeko zailtasunak.
2. Graduondoko ikasketa ofizialetan eta ikasketa propioetan euskarazko eskaintza baxua.
3. Euskararen kalitatea hobetzeko beharra, zenbait diziplinaren irakaskuntzan.
4. AZPkoen plantillaren behin-behinekotasun handia, euskara lan hizkuntza gisa erabili ahal izateko politikak garatzea oztopatzen duena.
5. Desoreka dago AZPko lanpostuen zerrendako talde ezberdinetako lanpostuen artean diren derrigortasun daten ehunekoetan.
6. Euskara gutxi erabiltzen da, jakite mailarekin erkatuta.
7. Euskarazko lana errazteko diseinatutako tresnak gutxi erabiltzen dira.
8. Euskarazko zientzia aldizkarien ikusgaitasun eskasa.
9. Hobetu daiteke hizkuntza corpusaren eremuan egindako lanari egin zaion difusioa.
10. Euskararen presentzia hobe daiteke, zenbait aplikazio informatikotan.

#### Indar-guneak

1. Nahitaezko irakasgaien % 97a euskaraz irakasten da.
2. Graduonko ikasle asko matrikulatuta dago euskaraz.
3. Lidergoa euskarazko doktorego tesien ekoizpenean.
4. Irakasle-ikertzaile plaza kopuru handia euskarazko profilarekin.
5. AZPko kideen ehuneko handiak du akreditatuta bere lanpostuaren euskarazko hizkuntza eskakizuna.
6. Unibertsitatearen komunitateko kide zenbait erreferenteak dira euskararen eta euskal kulturaren munduan.
7. Lidergoa euskarazko jakintzaren ekoizpen, transmisio eta hedapenean.
8. Unibertsitatearen komunitateko kide asko konprometiturik dago euskararen sustapenarekin.
9. Hizkuntza corpusa garatu eta erabiltzeko esperientzia zabala, bai eta bere plangintzan ere.
10. Euskarak presentzia esanguratsua du kultur jardueretan eta zientzia dibulgatzailean.
11. Euskarazko lana errazten duten kalitatezko hizkuntza-tresnak eskaintzen dira.

12. UPV/EHUren harreman ofizialetarako hizkuntza-erabilera arautzen duten jarraibide eta irizpideak.
13. Itzulpengintza eta interpretazio zerbitzu bikaina.

### 3.2. Kanpo diagnosis

#### Mehatxuak

1. Gutxi dira osasun zientzien arloko irakasle klinikoek plaza elebidunetan jarduteko behar besteko hizkuntza gaitasuna (C1) duten profesionalak.
2. Hizkuntza nagusiek zaildu egiten dute euskararen erabilera jakintza zientifikoa transmititzeko lanean.
3. Zailtasunak daude kanpoko agentziek ebaluazioa euskaraz egin dezaten.
4. Estrategia integralik ez dago, euskaraz egindako ekoizpen zientifikoaren inpaktua gehitzen laguntzeko.
5. Gutxi dira nazioarteko garrantzia duten indizeetan ongi kokatutako euskarazko aldizkariak.
6. Euskara gutxi erabiltzen da zenbait eremu profesionaletan.
7. Eskaintza eskasa da zenbait alorretan euskarazko kanpoko praktikak egiteko.

#### Aukerak

1. Gazte askok euskaraz daki.
2. Ikasle kopuru handi batek euskaraz egiten du unibertsitatera sartzeko ebaluazioa.
3. Jende askok du ziurtatua hizkuntza gaitasun nahikoa, IRI eta AZPko plazak betetzeko hautagai izateko.
4. Eusko Jaurlaritzaren politika berritzaileak euskararen erabilera sustatzeko.
5. Euskararen presentzia, erabilera eta gestioa balioesten duen kanpoko deialdia (*Bihain* ziurtagiria).
6. Gizarte eta kultur eragile askok interesa du UPV/EHUren lankide izateko, euskara eta euskal kultura sustatzea helburu.
7. Nafarroa, Akitania Berri eta Euskal Autonomia Erkidegoko gobernuen lankidetzak, euskararen aldeko ekimenak burutzeko.
8. Euskal diasporarekin bidelagun izateko aukerak.
9. Euskarazko *on-line* hezkuntza eta etengabeko prestakuntza egiteko eskariak gora egin du.
10. Aurreikus daiteke Euskararen erabilera Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan normalizatzeko prozesua arautzeko araubidea eguneratuko dela.

## 4.

# Euskararen III. Plan Gidariaren (2018-2022) ardatz estrategikoak

### 4.1. I. Ardatza: Euskararen erabilera, presentzia eta kudeaketa

Eguneroko kudeaketan euskararen erabilera eta presentzia handitzea da UPV/EHUk duen erronka handienetakoa. Unibertsitatearen helburuetan, euskara zerbitzu-hizkuntza izan behar dela adierazten da; baina, horrez gain, lan-hizkuntza gisa euskararen erabilera handitu nahi bada, eta euskararen kalitatea bermatu, ezinbestekoa da kudeaketarako sistemetan txertatzea. Horretarako, ebaluazioa, garapena eta aitorpena jasotzen dituen plangintzak diseinatu behar dira, langileen formazioan eragin behar da, hizkuntza paisaia euskararen presentzia bermatu behar da, barneko lan-harremanetan euskararen erabilera bultzatu behar da, harreman ofizialetan hizkuntzen erabilerarako jarraibide eta irizpideak egungo beharrezanetara moldatu behar dira eta ikasle, irakasle zein administrazio eta zerbitzuetako pertsonalaren hizkuntza-eskubideak bermatuko dituzten neurriak bultzatu behar dira.

UPV/EHUko kideen gehiengoak daki euskaraz eta ez dakitenen artean ere asko dira ulertzeko gai direnak. Baina oraindik erabileran asko dago egiteko eta, ondorioz, euskarak babes eta sustapen sendoa behar du. Euskara lan eremuan eta lanetik edo ikasgelatik kanpoko eremuan gehiago erabili dadin estrategiak bultzatu behar dira. Hizkuntzarekin ditugun inertziak astinduz, hizkuntza-ohituren aldaketarako estrategiak garatuz, euskararekiko erantzukizunaren eta jokabideen inguruan hausnarketa bultzatuz eta euskara erabiltzeko testuinguru eta egoera berriak, abegikorragoak eta babestuagoak sortu behar dira.

#### Helburuak

- 4.1.1. Unibertsitateko eremu ezberdinetan euskararen erabileraren egoera ezagutu.
- 4.1.2. UPV/EHU<sup>n</sup> euskararen erabilera handitzeko estrategiak landu.
- 4.1.3. Zerbitzua euskaraz ematea eta euskara lan-hizkuntza izatea.
- 4.1.4. Euskara kalitatearen kudeaketarako sistemetan integratu.

#### Helburuak eta ekintzak

- 4.1.1. Unibertsitateko eremu ezberdinetan euskararen erabileraren egoera ezagutu.
  - 4.1.1.1. Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko V. plangintzaldiaren amaierako ebaluazioan erabilitako metodologia jarraituz, UPV/EHUren zerbitzuetako laneko esparruan euskararen erabilera eta presentzia neurtu eta 2020. urtean zehar Euskara Batzordean aurkeztu.
  - 4.1.1.2. Bikain ziurtagirirako aurre-txostenerako irizpideetan oinarrituta ikastegiekin zerbitzu eta lan hizkuntza gisa euskararen erabileraren diagnostia egin eta 2020. urtean zehar Euskara Batzordean aurkeztu.

- 4.1.1.3. Jendaurreko zerbitzua (kafetegiak, fotokopiategiak, ...) ematen duten kanpoko enpresa bakoitzak hizkuntza ofizialen erabilerarako UPV/EHUK ezarritako baldintzak betetzen dituen aztertu eta beharrezkoa den kasuetan neurri zuzentzaileak hartu.
- 4.1.1.4. Kale neurketen metodologia unibertsitatera egokitu eta ikasgeletatik eta bulegoetatik kanpoko unibertsitate eremuetan euskararen erabilera neurtu.
- 4.1.1.5. «Euskarari buruzko kontsulta eta iradokizunen buzoia» eratu, ikusgarritasuna eman eta emaitzak aurkeztu euskara batzordean.

#### **4.1.2. UPV/EHUn euskararen erabilera handitzeko estrategiak landu.**

- 4.1.2.1. *Aktibatu* programa ikastegi eta zerbitzuetan sustatu.
- 4.1.2.2. Hizkuntza-ohituretan aldaketak eman daitezten estrategiak martxan jarri.
- 4.1.2.3. Euskalgintzan diharduten erakundeekin elkarlanean euskararen erabilera sustatzeko ekintzak antolatu.
- 4.1.2.4. Langile eta ikasle berriei harrera egiten zaienean gure Unibertsitatea euskararen erabilerarako aukera gune gisa aurkeztu.
- 4.1.2.5. Atal-administratiboetan euskarazko zerbitzua eman eta euskaraz lan egitea bultzatzeko erabilera mikroplanak martxan jarri; lehenasuna eman ez atal elebidun gisa trinkotu behar diren atal-administratiboetara (ikusi I. eranskina).

#### **4.1.3. Zerbitzua euskaraz ematea eta euskara lan-hizkuntza izatea.**

- 4.1.3.1. Administrazio eta zerbitzuetako langileei zein irakasle-ikertzaile orori, lanerako hizkuntza gaitasuna eskuratzeko ikastaroak eta baliabideak eskaini.
- 4.1.3.2. Ikastegietan eta zerbitzuetan ardura lanpostuak dituztenek zerbitzua aktiboki euskaraz emateko konpromisoa har dezaten ekimenak sustatu.
- 4.1.3.3. Unibertsitateko laneko taldeetan euskaraz gehiago lan egitea helburu duten ekimen zehatzak diseinatu eta garatu.
- 4.1.3.4. Bertaratutako gehiengoak euskara ulertzeko gai denean bilerak euskaraz egiteko aukerak zabaldu: interpretaziorako teknologiez baliatu (Interprest, ...).
- 4.1.3.5. Harremanetarako hizkuntza ofizialen erabileraren inguruko irizpideak eta jarraibideak egokitu eta hedatu.
- 4.1.3.6. Ikastegietako Euskara Batzordeetatik euskara bultzatzeko mikroplanak diseinatu eta martxan jarri.

#### **4.1.4. Euskara kalitatearen kudeaketarako sistemetan integratu.**

- 4.1.4.1. Ikastegiak *Bikain* ziurtagiria lortzeko bidean jarri kalitatearen kudeaketarako sistemetan hizkuntza irizpideak txertatuz.

## **4.2. II. Ardatza: Formazioa**

UPV/EHUn posible da egun ia gradu guztiak bere osotasunean euskaraz ikastea. Dena den, oraindik ere badira derrigorrezko zenbait irakasgai euskaraz eskaintzen ez dituzten gradu gutxi batzuk. Horiek euskalduntzea da lehenasuna. Graduak hautazko irakasgaien kasuan, euskarazko eskaintza handitzea ikasleen eskariaren eta baliabideen menpe dago, kasu honetan sail bakoitzak dituen baliabideekin euskarazko hautazko irakasgaien eskaintza ahalik eta handiena bermatuko luketen planteamenduak egin behar dira.

Dauden baliabideen erabilera egokia eginez, eskaintza zabala egin behar da, baina baita irizpide batzuei lotua ere; alde horretatik, posible izango da ikastegi batean graduak euskarazko

eskaintza handitzea ikasleen eskaririk baldin badago eta beste ikastegi batean jada osorik euskaraz eskaintzen ez bada. Testuinguru honi lotuta euskal adarrean matrikulazioa areagotuko duten neurriak aztertu eta martxan jarriko dira.

Hala bada, 2013-2017 aldirako Euskararen II. Plan Gidarian ezarritako hizkuntza-ereduak kontuan izango dira 2018-2022 plangintzaldirako helburuak ezartzerakoan:

- D+: Euskarazko eskaintza gaztelaniazkoa baino ugariagoa.
- D: Euskarazko eskaintza gaztelaniazkoaren adinakoa.
- C: Gradu osoa euskaraz ikasteko aukera (hizkuntza ez-ofizialetako derrigorrezkoak izan ezik).
- B: Derrigorrezko guztiak euskaraz ikasteko aukera (hizkuntza ez-ofizialetan irakasten direnak izan ezik).
- A: Lehenengo bi ikasturteak euskaraz ikasteko aukera.

Medikuntzako graduak, berezkoak dituen ezaugarriengatik, jarraipen berezia eskatzen du. UPV/EHU-Osakidetza hitzarmenean (<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2009/01/0900103a.shtml>) zehazten dena kontuan izanik, UPV/EHUko zuzendaritza taldeak euskarazko eskaintza handitzen jarraitzeko proposamenak helaraziko dizkio bi erakundeetako ordezkariak osatutako batzorde mistoari.

Graduondoko euskarazko eskaintza hobetuko luketen estrategiak diseinatzeko, irakaskuntza horien espezifikotasuna, nazioartekotzearen estrategia eta ikasleen matrikula baxua aintzat hartu behar dira. Egoera honetan, euskaraz ikasteko eskari handia duten master ofizialak identifikatu eta horietan neurriak hartuko dira euskarazko eskaintza handitzeko.

Bestalde, inguruko premiei erantzungo dien euskarazko etengabeko prestakuntzaren eskaintza garatuko da. Arlo honetan, Euskal Herriko errealitatea eta euskal kulturaren erreferenteak, ondarea, sortzaileak..., ikasketetan zeharka txertatzeko ekimenak garatu daitezke. Izan ere, euskal komunitatea trinkotzea izan behar du euskalduntzerako prozesuan mugarri, euskara komunitate sortzaile bat baita, ez hizkuntza bat soilik.

Azkenik, corpus-plangintzaren, irakasleen prestakuntzaren eta baliabideen optimizazioaren bidez graduatan ikasleek jasotzen duten euskarazko irakaskuntzaren kalitatean sakondu behar da. Horretarako, euskarak graduen irakaskuntza-eskaintzan duen egoeraren diagnosis egingo da. Diagnostik ateratako ondorioak lagungarriak izango dira euskarazko irakaskuntzaren kalitatean ekintza-planak diseinatzeko, ikastegietan euskara-planak eratzeko eta ikastegien zein graduen egiaztatze-prozesuetan kalitate-adierazleen ebidentziak eskaintzeko. Bestalde, komunikatzeko testuinguru espezializatuetan (testuinguru akademiko eta profesionalean) beharrezko diren euskararen erregistroak menderatzeko prestakuntza bultzatuko da.

## Helburuak

- 4.2.1. Graduoko euskarazko irakas-eskaintza handitzen jarraitu ahalik eta titulazio gehienak osorik euskaraz egin ahal izateko<sup>1</sup>.**
- 4.2.2. Graduondoko eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko euskarazko irakas-eskaintza handitu.**
- 4.2.3. Euskarazko irakaskuntzaren bikaintasuna bilatu.**

---

1 Gradu bakoitzerako helburu izango diren hizkuntza ereduak ebaluazioaren atalean daude zehaztuta

## Helburuak eta ekintzak

### 4.2.1. Graduoko euskarazko irakas-eskaintza handitzen jarraitu ahalik eta titulazio gehienak osorik euskaraz egin ahal izateko<sup>2</sup>.

- 4.2.1.1. Graduetan euskaldundu behar diren irakasgaien planifikazioa egin eta ikasleen eskaria eta dauden giza-baliabideak aztertu.
- 4.2.1.2. Urtero euskarazko irakas-eskaintzaren jarraipena egin, plangintzaldiaren erdian izandako bilakaeraren berri eman eta beharrezko balitz zuzentzeko neurriak proposatu.
- 4.2.1.3. Euskarazko lerroetan matrikulatzeko kanpainak bultzatu.
- 4.2.1.4. Hautazko irakasgaietan talde berean bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko estrategiak diseinatu eta garatu.
- 4.2.1.5. Graduoko ikasleei kanpo praktikak euskaraz egiteko aukera eskaintzen dieten enpresa eta erakundeen erregistroa sortu.
- 4.2.1.6. Euskaraz egiten diren Gradu Amaierako Lanen bilakaera aztertu eta sustapen lana egin ikastegiekin batera.
- 4.2.1.7. Esperientzien geletako ikasleak beste gradu batzuetako euskarazko irakasgaietan matrikulatzeko aukera aztertu eta posible bada gauzatu.

### 4.2.2. Graduondoko eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko euskarazko irakas-eskaintza handitu.

- 4.2.2.1. Euskarazko eskaria duten master ofizialetan irakasgaiak euskaraz eskaintzeko aukera aztertu eta sustatu.
- 4.2.2.2. Masterretako batzorde akademikoekin batera Master Amaierako Lana euskaraz egiteko aukera sustatu, besteak beste, ikasleei espresuki aukera hori dagoela informatuz.
- 4.2.2.3. Berezko ikasketetan euskarazko eskaintza handitzeko neurriak hartu.
- 4.2.2.4. Etengabeko prestakuntzaren arloaren bitartez euskal gaien eta euskal kulturaren irakaskuntza lantzeko ekimenak garatu.

### 4.2.3. Euskarazko irakaskuntzaren bikaintasuna bilatu.

- 4.2.3.1. Graduoko ikasketetan euskararen egoeraren azterketarako diagnosi protokoloa egin eta ekintza plan pilotuak diseinatu.
- 4.2.3.2. Irakasleen etengabeko prestakuntza linguistikorako formazio moduluak eskaini.
- 4.2.3.3. Graduon euskarazko komunikazio akademikoa eta profesionala lantzen duten Euskararen Plan Gidariko irakasgaiak egokitu.
- 4.2.3.4. Euskarazko irakaskuntzarako euskarri diren tresna digitalen garapena bultzatu.
- 4.2.3.5. Hezkuntzako graduotako euskal taldeetan matrikulatutako ikasleen euskarazko komunikazio-gaitasuna hobetzeko esperientzia pilotu bat abiarazi eta beste gradu batzuetara esportagarria den aztertu.
- 4.2.3.6. Irakasle-ikertzaileei lotutako arautegiak (irakasleen eta ikertzaileen kontrataziorako arautegia eta irakaskuntzaren esleipenerako arautegia) berrikusten direnean euskararen normalizazioa bultzatzeko neurriak aintzat hartu.

## 4.3. III. Ardatza: Corpus linguistikoaren plangintza

Unibertsitateko euskarazko argitalpenak sustatzeko politikei esker, maila unibertsitarioan euskaraz –gaztelaniarekin konparatuta– duen egoera soziolinguistiko ahulagoa gainditzen ari

---

2 Gradu bakoitzerako helburu izango diren hizkuntza ereduak ebaluazioaren atalean daude zehaztuta

gara urratsez urrats. Aipatu egoera hobetzeko helburuarekin, Euskararen III. Plan Gidaria baliatu nahi dugu euskarazko unibertsitate mailako argitalpenak (ikasliburuak, irakas-materialak, aldizkari zientifikoak, ikerketa bildumak etab.) ekoizten jarraitzeko eta hizkuntza-baliabide ezberdinak garatzeko, bereziki behar handiagoak dituzten jakintza-alorretan.

Corpus linguistikoaren plangintza sendoa garatu da urteetan zehar UPV/EHU. Egungo Euskararen erabileraren isla diren hainbat hiztegi eta corpus orokorrak zein espezializatuak ditugu. Deialdi ezberdinen bitartez, unibertsitateko irakasleen euskarazko testuen ekoizpena handitu da eta idazlanen kopurua zaintzea garrantzitsua bada ere, hizkuntzaren kalitateari geroz eta arreta handiagoa jartzen diogu. Izan ere, erregistro akademikoan euskararen normalizazioan pauso esanguratsuak eman badira ere, zenbait arlotan oraindik badugu hura garatu eta indartzeko premia. Azken hamarkadan estrategiak eta baliabideak eskaini ditugu euskarazko terminologia espezializatu finkatzeko eta unibertsitateko testuen kalitate linguistikoa hobetzen laguntzeko. Etorkizun hurbilean ere hori izango da corpus linguistikoaren eremuan aurrera egiteko jarraituko dugun bidea.

## Helburuak

- 4.3.1. Euskarazko irakas-materialen eta hizkuntza baliabideen kopurua handitu.**
- 4.3.2. Euskarazko irakas-materialen kalitate linguistikoa bermatu.**
- 4.3.3. Euskarazko irakas-materialen, corpusen eta hizkuntza baliabideen erabilera handitu erakunde normalizatzaileekin elkarlana sustatuz.**

## Helburuak eta ekintzak

- 4.3.1. Euskarazko irakas-materialen eta hizkuntza baliabideen kopurua handitu.**
  - 4.3.1.1. Irakas-materialen eta ikasliburuen sorkuntza zein itzulpenetarako plangintzak egin eta deialdiak burutu.
  - 4.3.1.2. Irakas-materialen eta ikasliburuen deialdietan euskarri berrietarako materialgintza sustatu.
  - 4.3.1.3. Euskarazko irakas-materialak sortzeko lantalde-proiektuak bultzatu (adibidez, Hezkuntza Berrikuntzako Proiektuen deialdiaren barruan).
  - 4.3.1.4. Euskarri digitaletan euskararen presentzia bultzatzeko ekimenak babestu eta garatu.
- 4.3.2. Euskarazko irakas-materialen kalitate linguistikoa bermatu.**
  - 4.3.2.1. Irakas-materialen kalitate linguistikoa bermatzeko irakasle-ikertzaileei formazioa eskaintzen jarraitu.
  - 4.3.2.2. Irakasle-ikertzaileek euskaraz ekoiztutako materialak eta horietan erabilitako terminologia errealak kontsultagai jarri, erregistro akademikoaren normalizazioari laguntzeari begira.
- 4.3.3. Euskarazko irakas-materialen, corpusen eta hizkuntza baliabideen erabilera handitu erakunde normalizatzaileekin elkarlana sustatuz.**
  - 4.3.3.1. Irakasle-ikertzaileek paperean argitaratzen ez dituzten euskarazko irakas-materialak modu askean (*open access*) kontsultagai jarri.
  - 4.3.3.2. Irakasle-ikertzaileek euskaraz ekoiztutako irakas-materialak kontsultagai jarri argitalpenari dagozkion ezagutza-arloetako ikastegietan.
  - 4.3.3.3. Ezagutza arloko unibertsitateak hiztegi gintzan, terminologiaren normalizazioan eta corpus gintzan egindako lanak komunitatearen eskuragarri jarri, bereziki doktoregoko ikasleen esku.



- 4.3.3.4. Irakasleei eta ikasleei gradurako eskuragarri dituzten euskarazko irakas-materialei, corpusei eta hizkuntza baliabideei buruzko informazioa eskaini.
- 4.3.3.5. Irakaskuntza gidetan euskarazko irakas-materialak erreferentzia bibliografikotzat erabiliak izan daitezzen ahalbidetu.
- 4.3.3.6. Euskararen normalizazioaren gidaritza daramaten erakundeekin elkarlana sustatu.

#### **4.4. IV. Ardatza: Ikerketa eta hedakuntza**

UPV/EHUren helburu estrategikoa da euskararen erabileraren normalizazioan eta Euskal Herriko garapen soziokulturalean daukan lidergoa areagotzea.

Unibertsitateko Estatutuetako hainbat artikulutan azpimarratzen den bezala, euskararen normalizazioak, batetik, eta euskara unibertsitateko jardun guztietara zabaltzeko beharrak, bestetik, euskaraz egindako ikerketa garatzeko betekizuna dakarte.

Gaur egun hainbat hizkuntza erabili behar dira ikerketan, ezinbestean; batetik, munduan sortutako ezagutza ahalik eta osoena jasotzeko, eta, bestetik, norberaren ekarpenak komunitate zientifiko ahalik eta zabalenari transmititzeko. Gauzak horrela, ikerketa bera jarduera eleaniztuna da ezinbestean.

UPV/EHUK apustu sendoa egiten du euskaraz eginiko nazioarteko doktorego-tesien sustapenean. Ahalegin horren fruitua dira azken lau ikasturteetan UPV/EHUn euskaraz burutu diren 186 doktorego-tesiak, horietatik heren bat nazioartekoak izan direlarik. Nazioarteko doktorego-tesiak euskaraz eginez etorkizuneko unibertsitateko irakasle-ikertzaileak eleaniztunak trebatzen dira, irakaskuntzarako eta ikerkuntzarako materiala sortzen da, euskararen corpus zientifiko-teknologikoa garatzen da eta hizkuntzaren prestigioari bultzada ematen zaio.

Unibertsitatetik ezagutza gizarteratzeko dibulgazio zientifikoa ezinbestekoa da. Are gehiago unibertsitate mailako irakaskuntzan eta arlo profesionalean erabat normalizatu gabe dagoen hizkuntza batean egiten den dibulgazioaren kasuan.

Ikerketa euskaraz egiteaz ari garenean, ikerketarako lan-hizkuntza nagusi gisa euskara erabiltzen duten taldeez ari gara. Ezin baita euskarazko ikerketarik izan ikertzaileen lan-hizkuntza nagusia euskara ez den bitartean.

Gauzak horrela, plan honetan euskaraz eginiko nazioarteko doktorego-tesiei bultzada nabarmena eman nahi zaie. Era berean, euskaraz argitaratzen den ikerketa eta zabalkunde zientifikorako beharrezko baliabideak zaindu nahi dira. Eta horrez gain, ikerketa-jardueran euskararen erabilera sustatzeko bitartekoak planifikatuko dira. IV. ardatz estrategikoa honetan zehaztutako helburuak lortzeko, ezinbestean UPV/EHUtik kanpo dauden ikertzaileekin ere lan egin beharko da.

#### **Helburuak**

- 4.4.1. Euskaraz eginiko doktorego-tesi kopuru orokorra handitu eta horien artean bereziki nazioartekoak sustatu.**
- 4.4.2. Euskaraz plazaratutako ikerketaren balioa eta oihartzuna handitu.**
- 4.4.3. UPV/EHUko euskarazko aldizkari zientifikoen eta bildumen kalitatea eta oihartzuna handitu.**
- 4.4.4. Ikertzaileen artean euskararen ezagutza handitu eta euskarazko komunikazio akademikoaren kalitatea bermatu.**

## Helburuak eta ekintzak

### **4.4.1. Euskaraz eginiko doktorego-tesi kopuru orokorra handitu eta horien artean bereziki nazioartekoak sustatu.**

- 4.4.1.1. Nazioarteko euskarazko doktorego-tesiak egitearen abantailen gaineko zabalkundea egin masterreko ikasleen artean.
- 4.4.1.2. Bi urterik behin egiten den euskarazko tesi onenen sariketan nazioarteko euskarazko tesiak bereziki balioetsi.
- 4.4.1.3. Doktorego-tesia euskaraz egiten ari diren ikertzaileei jakinarazi zein hizkuntza-baliabide dituzten eskura.
- 4.4.1.4. Nazioarteko euskarazko doktorego-tesien defentsarako laguntza deialdiaren zabalkundea egin tesia euskaraz egiten ari diren ikertzaileen artean.
- 4.4.1.5. Etorkizuneko doktorego tesien hazia izango diren euskararen ikerketa soziolinguistikorako proiektuak sustatu.

### **4.4.2. Euskaraz plazaratutako ikerketaren balioa eta oihartzuna handitu.**

- 4.4.2.1. Euskaraz plazaratzen den ikerketaren balioa handitzeko UNIBASQ-ekin lantalde bat abiarazi.
- 4.4.2.2. Euskaraz argitaratutako ikerlanak kontuan izan euskararen ezagutza balioztatzen den ikerketa deialdietan.
- 4.4.2.3. Euskal Herriko eta kanpoko erakundeekin elkarlanean aritu euskaraz plazaratutako ikerketa eta zientziaren zabalkundea bultzatzeko.
- 4.4.2.4. Kongresu, biltzar zientifikoetan eta ikerketari lotutako zabaltze ekimenetan, bereziki hedakuntza handiko ekitaldietan, euskararen presentzia handitzeko eta ikertzaile euskaldunen parte-hartzea bultzatzeko neurriak hartu.
- 4.4.2.5. Doktore euskaldunen datu basea elikatu eta ikertzaileen komunitateari ezagutarazi.
- 4.4.2.6. Zientziaren hedakuntza euskaraz bultzatzen duten ekimenak sustatu.
- 4.4.2.7. ESCI (Emerging Sources Citation Index) datu-basean sartzea lortzen duten UPV/EHUko aldizkari eta bildumetako zuzendaritzei euskaraz aurkeztutako artikulua onartzeko proposamena egin eta artikulua ingelesera itzultzeko laguntza eskaini.

### **4.4.3. UPV/EHUko euskarazko aldizkari zientifikoaren eta bildumen kalitatea eta oihartzuna handitu.**

- 4.4.3.1. Ikerketa deialdietan balioztatuak izan daitezten euskarazko aldizkari zientifikoek eta bildumek bete beharreko kalitate irizpideak zehaztu eta irizpide horiek betetzen dituzten aldizkariaren zerrenda egin.
- 4.4.3.2. Euskaraz argitaratzen diren aldizkari zientifikoek Latindex katalogoaren irizpideak bete ditzaten laguntza eskaini.
- 4.4.3.3. Euskaraz argitaratzen diren bildumei edizio akademikoaren kalitatearen zigilua (CEA-APQ) lortu dezaten laguntza eskaini.

### **4.4.4. Ikertzaileen artean euskararen ezagutza handitu eta euskarazko komunikazio akademikoaren kalitatea bermatu.**

- 4.4.4.1. Kontratututako ikertzaileen (14/2011 legeko 22. artikulukoak eta iraunkorrek) euskara gaitasuna erregistratu eta C1 maila egiaztatuta ez dutenei UPV/EHUko EIGA azterketara aurkezteko informazioa luzatu.
- 4.4.4.2. Kontratututako ikertzaileei euskara ikasteko dauden laguntzen berri eman.
- 4.4.4.3. Kontratututako ikertzaileei euskarazko komunikazio akademikoa lantzeko berriazko formazioa eskaini.

## 4.5. V. Areatza: Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonala (AZP)

### Helburuak

- 4.5.1. Administrazio-atal elebidunak eta euskarazko administrazio-atalak definitu.
- 4.5.2. Lanpostuen hizkuntza-eskakizun mailak egokitzeko erabili beharreko irizpideak zehaztu.
- 4.5.3. Lanpostuei derrigortasun-datak esleitzeko irizpideak zehaztu.

EAEko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen 86/1997 dekretuak administrazio-atal elebidunak eta euskarazko administrazio-atalak aurreikusten ditu (15. atalean). Elebidunak beren zereginak bi hizkuntza ofizialetatik edozeinetan betetzen dituztenak dira. Euskarazko administrazio-atalak beren zereginak batez ere euskaraz betetzen dituztenak dira. Dekretuaren 16. atalak honako administrazio-atalak sailkatzen ditu: jendaurreko atalak (zeregin nagusia, ahoz zein idatziz, administratuarekiko harremanetan oinarritzen denean), gizarte-mailako atalak (herri-administrazioaren harreman-sareak oso nabarmenak eta bereziki gizarte-mailakoak direnean), atal orokorrak (zeregin nagusia batez ere administrazio barruko alorrean gertatzen denean) eta atal bereziak (bitarteko eta baliabideak eskaintzen dituzten atal zein zerbitzuak). Erakundeak derrigorrez bete beharreko indizea % 45etik % 70era bitartekoa denean (UPV/EHUren kasua), ondorengoa bete behar da:

Administratuari zerbitzua euskaraz eskaini beharko zaio bai ahoz bai idatziz eta, horretarako, jendaurreko administrazio-atal elebidunak ezarriko dira. Administrazio-atal elebidunak jarriko dira gazteriarekin harreman zuzena eta ohikoa duten ataletan eta era mailakatuan, erakundeak erabilera normalizatzeko duen planean horrela ezarrita badago, euskara erabiltzeko mikroplanak ere egingo dira gizarte-mailako administrazio-ataletarako.

Aurreko atalerako azaldutako helburuaz gainera, administrazio-atal elebidunak jarriko dira gizarte-izaerako ataletan eta, pixkana, erakundeak euskararen erabilera normalizatzeko duen planean horrela ezarrita badago, euskara erabiltzeko mikroplanak egingo dira maila orokorreko administrazio-ataletan ere.

Era berean, erakundeak derrigorrez bete beharreko indizea % 45etik % 70era bitartekoa denean, aurreko atalerako azaldutako helburuaz gainera, administrazio-atal elebidunak jarriko dira izaera orokorreko ataletan, hau da, beren zeregin nagusia batez ere administrazio barruko alorrean gertatzen denean.

Lehenengo eta behin esan behar dugu hizkuntza-eskakizunen sistemari esker bermatu dela, neurri handi batean, euskararen ezaguera Administrazioko langileen artean. UPV/EHUn euskaraz zerbitzua eskaini eta lan egingo dela bermatzeko helburuarekin, hizkuntza eskakizunen eta derrigortasun-daten berrikuspenera egiteko eta hartu beharreko erabakiak bideratzeko, unitate administratibo ezberdinen egoera eta lanpostuetan zehaztutako funtzio zein eginkizunak kontuan hartuko dira. Horrela, unitate administratiboetan derrigortasun-daten ehunekoak handitu beharko dira eta lanpostuetako hizkuntza-eskakizun mailak zehaztu beharko dira hizkuntza-eskakizun bakoitzak ematen dituen gaitasun eta trebetasunak kontutan hartuz, 86/1997 dekretuan azaldu bezala:

- 1. hizkuntza eskakizuna: benetako testuak ulertzea eskatzen da (idatzizkoak zein ahozkoak). Komunikazio gaitasuna mugatua da maila honetan, bai ahoz, bai idatziz. Behe-mailako ulermen-maila da.
- 2. hizkuntza eskakizuna: oinarritzko maila eskatuko da hizkuntza trebetasun guztietan, idazmenean izan ezik. Alor horretan behe-mailako gaitasuna eskatuko da.

- 3. hizkuntza eskakizuna: oinarrizko maila eskatuko da hizkuntza trebetasun guztietan (ulermena, mintzamina, irakurmena, idazmena).
- 4. hizkuntza eskakizuna: gaitasun-maila jasoak eskatzen dira lau hizkuntza trebetasunetan.

### *Administrazio-atal elebidunak eta euskarazko atalak zehazteko erabili beharreko irizpideak.*

86/1997 Dekretuaren 20. artikuluan xedatutakoaren arabera, derrigortasun-datak esleitzerakoan kontuan hartu beharko da lanpostuaren atalaren izaera. Horregatik, atal elebidunak eta euskarazko atalak eratzeko edo eraturakoak trinkotzeko, beharrezkoak diren lanpostuetan derrigortasun-data berriak ezartzeko aukera egongo da.

Administrazioan atal bat zer den zehaztea konplexua bada ere, atalak, normalean, Funtzio Publikoak langileen kudeaketan erabiltzen dituen zentro organikoekin parekatzen dira. Hala ere, prozedura honi dagokionez, Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren eginkizuna da, ordezkaritza sindikalarekin negoziatu ostean, bere erakundeko atalak eta horien izaera zehaztea.

VI. plangintzaldiko indizearen arabera, UPV/EHU administrazio-atal elebidunak ezarriko dira jendaurreko ataletan, gizarte mailako ataletan, eta atal orokorretan.

Atal elebidunak dira euren berezko eginkizunak bai euskaraz bai gaztelaniaz, bietan betetzen dituzten atalak.

Atal elebidun izendatuko dira honako baldintza hauek aldi berean betetzen dituzten atalak:

1. Atala osatzen duten lanpostuen % 60tik gorakoek derrigortasun-data ezarria izatea.
2. Atalburu den langileak dagokion hizkuntza-eskakizuna edo bat baxuago egiaztatua izatea, eta atala osatzen duten gainerako langileen % 60tik gorakoek dagokien hizkuntza-eskakizuna egiaztatua izatea. Laugarren hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuetan, kontuan izango da langileak hirugarren hizkuntza-eskakizuna egiaztatua izatea<sup>3</sup>.

Euskarazko atalak dira bere eginkizunak batez ere euskaraz betetzen dituztenak.

Euskarazko atal izendatuko dira honako baldintza hauek betetzen dituzten atalak<sup>4</sup>:

1. Atalburuak eta atala osatzen duten lanpostu guztien edo ia guztien (% 90etik gora) lanpostuetan derrigortasun-data ezarrita izatea.
2. Atalburu den langileak eta gainerako langile guztiek edo ia guztiek (% 90etik gora) diharduten lanpostuaren hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta izatea. Laugarren hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuetan, kontuan izango da langileak hirugarren hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta izatea.
3. Zeregin gehienak euskaraz betetzea, betiere herritarrek zerbitzu-hizkuntza hautatzeko duten eskubidea urratu gabe.

Kasu honetan, I. eranskinean adierazten dira III. Plan Gidari honen hasieran atal elebidun edo euskarazko atal izateko irizpideak betetzen dituzten administrazio-atalak. Urtero administrazio-atalen eta mikroplanen berrikuspena egingo da eta, baldintzak betetzen dituzten administrazio-

<sup>3</sup> Ikastegien kasuan, aurreko bi irizpideak betetzeaz gain, irakaskuntza gaitasuna (CDB>0) duten irakasle-ikertzaile lanpostu elebidunen ehunekoa 50 baino handiagoa denean

<sup>4</sup> Ikastegien kasuan, euskarazko atal-administratiboa izateko urrezko Bikain ziurtagiria lortu beharko dute.

atalak, atal elebidun edo euskarazko atal bezala izendatuko dira hurrengo urteetako planifikazioari begira.

### *Lanpostuen hizkuntza-eskakizun mailak egokitzeko erabili beharreko irizpideak.*

UPV/EHUko lanpostuen zerrendako lanpostuen hizkuntza-eskakizun mailak egokitzeko oinarritzat hartu den dokumentua, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 2017ko abenduan argitaratutako hizkuntza-eskakizunak esleitzeko proposamena izan da. Lanpostuetan egingo diren hizkuntza-eskakizunen aldaketa guztiak bat etorri beharko dira Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 2017ko abenduan argitaratutako proposamenarekin.

Hauek dira UPV/EHUko lanpostuen zerrendako lanpostuen hizkuntza-eskakizunak egokitzeko proposamen zehatzak:

- 1. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak** 2017ko abenduan argitaratutako hizkuntza-eskakizunak esleitzeko proposamena betetzen ez duten lanpostu guztiei egokituko zaie hizkuntza eskakizuna. Zehazki, Hizkuntza Plangintzarako Teknikari eta Euskararen Erabilera Normalizatzeko Teknikari lanpostuetako dotazio guztiei hizkuntza eskakizuna igoko zaie 3tik 4ra plana onartzen denean.
- 2. Bigarren hizkuntza eskakizuna** esleituta duten lanpostuen funtzioetan (monografia oinarri hartuta) txostenak idatzi beharra zehazten den kasuetan, lanpostu horiei 3. hizkuntza eskakizuna esleituko zaie. Zehazki, Bulego-buru eta Arloko Arduradun lanpostuetako dotazio guztiei hizkuntza eskakizuna igoko zaie 2tik 3ra.
- 3. Izendapen askeko lanpostua** euskarazko administrazio-atalean edo administrazio-atal elebidunean kokatzen bada, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 2017ko abenduan argitaratutako hizkuntza-eskakizunak esleitzeko proposameneko hizkuntza eskakizun altuena jarriko zaio. Euskarazko administrazio-ataletan kokatzen diren izendapen askeko lanpostuei, 2019ko abenduaren 20ko derrigortasun-datarekin ezarriko zaie Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren proposameneko hizkuntza-eskakizun altuena. Atal-elebidunetan kokatzen diren izendapen askeko lanpostuei, atalari izendapen berria ezarri zaionetik zenbatzen hasita 3 urtera ezarriko zaie aipatu proposameneko hizkuntza-eskakizun altuena derrigortasun-data gaindituarekin.

Hizkuntza eskakizuna egokitzeko hautatuak izan diren lanpostuei (II. eranskina) 2019an konbokatutako laneko eskaintza publiko eta lekualdatze lehiaketa prozesuen bukaeran egokituko zaizkie hizkuntza eskakizun berriak. Hizkuntza Plangintzarako Teknikari eta Euskararen Erabilera Normalizatzeko Teknikari lanpostuen kasuan, Plana onartzen deneko derrigortasun-data gaindituarekin ezarriko zaie hizkuntza eskakizun berria.

### *Lanpostuei derrigortasun-datak esleitzeko irizpideak.*

2018ko urtarrilean Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak argitaratutako dokumentuan (Eusko Jaurlaritzan euskararen erabilera normalizatzeko irizpide orokorrak eta plan nagusia) oinarrituta, derrigortasun-datak aldatu edo berriak ezartzeko honako hiru egoeraren batean egon beharko da lanpostua:

- 1. Jendaurreko lanpostua izatea.** Jendaurreko lanpostuak bi motatakoak izango dira. Alde batetik, herritarrei lehenengo arreta ematen dieten lanpostuak. Eta bestaldetik, herritarrak artatzeko administrazioaren lehenengo lerroan ez badaude ere, herritarrekin harremanak dituzten lanpostuak.
- 2. Harreman estrategikoak dituen lanpostua izatea.** Harreman estrategikoak dituzten lanpostuak bi motatakoak izango dira. Alde batetik, herri administrazioaren baitako

hainbat ataletako langileekin lan-harremanak dituzten lanpostuak. Eta bestaldetik, beste herri-administrazioekin lan-harremanak dituzten lanpostuak. Hau da, herri-administrazioaren barruko harreman estrategikoak dituzten lanpostuez gain, beste herri-administrazioekin ahozko zein idatzizko komunikazioak dituzten lanpostuak ere estrategikoak izango dira.

3. **Atal elebidunak eta euskarazko atalak eratzeko edota trinkotzeko beharrezkoa den lanpostua izatea.**

Derrigortasun-datak aldatu edo berriak ezartzeko aipatu egoeraren batean dauden lanpostuen kasuan, atal elebidunak eta euskarazko atalak eratzeko edota trinkotzeko beharrezkoa denean derrigortasun-data gainditua ezarriko zaie eta, gainerako kasuetan, derrigortasun-data gainditua 3 urtera ezarriko zaie.

Aurreko irizpideak kontuan izanik, derrigortasun-datak ezarriko dira ondorengo lanpostuetan:

- Lanpostu berrietan edo dagoeneko existitzen diren lanpostuen dotazio berrietan, hutsetik sortutakoak izan nahiz amortizazio baten ondoren sortutakoak izan.
- Planak irauten duen bitartean, erretiroagatik hutsik geratu edo geratzekoak diren lanpostuak.
- Plazaren titularrak bere lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatua duten lanpostuak.

III. eranskinean jasota dauden lanpostuak dira 2019ko ekainera arte onartutako laneko eskaintza publikoetan eta lekualdaketa lehiaketetan sartuta egon gabe, Plana onartzen denean derrigortasun datak berrikusteko irizpideak betetzen dituztenak.

2019an konbokatutako laneko eskaintza publikoetan eta lekualdatze lehiaketetan murgilduta dauden lanpostuei hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data aipatu prozesuak bukatu ondoren aldatuko zaizkie.

## 5.

### Euskararen III. Plan Gidariaren (2018-2022) ebaluazioa

#### 5.1. Adierazle orokorrak

Planaren jarraipenerako adierazle orokorrak erabiliko dira. Ondorengo taulan adierazle orokorren izenburua, hasierako datua eta planaren bukaerarako xede-balioa (2022) adierazten dira.

Zkia	Ardatza	Adierazlearen izenburua	Hasierako datua	2022
1	I	AZPko lanpostuen hizkuntza eskakizunen egiaztatze maila (%).	<b>73,2</b>	<b>77</b>
2	I	AZPko lanpostuen derrigortasun-daten ezartze maila (%).	<b>70,8</b>	<b>75</b>
3	I	3. hizkuntza eskakizuna egiaztatuta duten AZPko langileen ehunekoa (%).	<b>37,1</b>	<b>41</b>
4	I	Bikain ziurtagiria lortu duten ikastegiaren ehunekoa (%).	<b>10</b>	<b>50</b>
5	I	Irakaskuntza gaitasuna duten jardunaldi osoko irakasle plaza elebidunen ehunekoa (%).	<b>57,8</b>	<b>65</b>
6	II	Irakaskuntza gaitasuna duten irakasle plaza elebidunen ehunekoa (%).	<b>54,9</b>	<b>62</b>
7	II	Graduan euskaraz matrikulatutako ECTS kredituen ehunekoa (%).	<b>44,8</b>	<b>49</b>
8	II	Graduan euskaraz eskainitako ECTS kredituen ehunekoa (%).	<b>82,6</b>	<b>87</b>
9	II	Graduan lehen aldiz eta euskaraz matrikulatzen diren ikasleen ehunekoa (%).	<b>51,5</b>	<b>57</b>
10	II	Graduan euskaraz matrikulatzen diren ikasleen ehunekoa (%)	<b>48,6</b>	<b>54</b>
11	II	Master ofizialetan euskaraz eskainitako ECTS kredituen ehunekoa (%).	<b>11,3</b>	<b>13,5</b>
12	III	UPV/EHUko euskarazko argitalpenen kopurua.	<b>72</b>	<b>85</b>
13	IV	Euskaraz egindako doktorego tesien ehunekoa (%).	<b>8,5</b>	<b>12</b>
14	IV	Euskaraz egindakoen artean nazioartekoak diren doktorego tesien ehunekoa (%).	<b>35,7</b>	<b>50</b>
15	IV	UPV/EHUko ikertzaileek euskaraz argitaratutako zientzia artikuluen kopurua.	<b>118</b>	<b>145</b>



Jarraian adierazle orokorren definizio taula ikusi daiteke. Adierazle batzuen datua ikasturteka emango da eta besteena urteka. Adierazleen definizioen taula honetan adierazle bakoitzaren kalkulurako zehaztapenak ematen dira.

Zkia	Ardatza	Adierazleen definizioa
1	I	AZPko lanpostuen zerrendan lanpostuari ezarritako hizkuntza eskakizuna edo altuagoa egiaztatuta duten lanpostuen ehunekoa (%) neurtzen du adierazle honek. Hasierako datua 2017. urteko abendukoa da. Kalkulua: Langileak lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatuta duten AZPko lanpostuen zerrendako lanpostuen kopurua / AZPko lanpostuen zerrendako lanpostu kopurua.
2	I	AZPko lanpostuen zerrendan derrigortasun-data ezarrita duten lanpostuen ehunekoa (%) neurtzen du adierazle honek. Hasierako datua 2017. urteko abendukoa da. Kalkulua: Derrigortasun-data ezarrita duten AZPko lanpostuen zerrendako lanpostuen kopurua / AZPko lanpostuen zerrendako lanpostu kopurua.
3	I	Gutxienez 3. hizkuntza eskakizuna egiaztatuta duten AZPko langileen ehunekoa (%) neurtzen du adierazle honek. Hasierako datua 2017. urteko abendukoa da. Kalkulua: Gutxienez 3. hizkuntza eskakizuna egiaztatuta duten AZPko langile kopurua / AZPko langile kopurua.
4	I	Ziurtagiriaren maila edozein izanik, Bikain ziurtagiria lortu duten ikastegien ehunekoa (%) neurtzen du adierazle honek. Hasierako datua 2017. urteko abendukoa da. Kalkulua: Bikain ziurtagiria lortu duten ikastegien kopurua / ikastegien kopurua.
5	I	Irakaskuntza gaitasuna (CDB>0), jardunaldi osoko arduraldia eta euskararen betekizuna duten irakasle plazen ehunekoa (%) neurtzen du adierazle honek. Hasierako datua 2017. urteko abendukoa da. Kalkulua: Irakaskuntza gaitasuna, jardunaldi osoko arduraldia eta euskararen betekizuna duten irakasle plazen kopurua / irakaskuntza gaitasuna eta jardunaldi osoko arduraldia duten irakasle plazen kopurua.
6	II	Irakaskuntza gaitasuna (CDB>0) eta euskararen betekizuna duten irakasle plazen ehunekoa (%) neurtzen du adierazle honek. Hasierako datua 2017. urteko abendukoa da. Kalkulua: Irakaskuntza gaitasuna (CDB>0) eta euskararen betekizuna duten irakasle plazen kopurua / irakaskuntza gaitasuna (CDB>0) duten irakasle plazen kopurua.
7	II	Graduko ikasketetan euskaraz matrikulatutako ECTS kredituen ehunekoa neurtzen du adierazle honek. Neurketatik salbuetsita daude hizkuntza aztergai duten graduak (Ingeles Ikasketako Gradua, Euskal Ikasketetako Gradua, Filologiako Gradua eta Itzulpengintza eta Interpretazioko Gradua) eta esperientzien gelak. Euskaraz eskaintzen den irakasgai bakoitzaren kreditu kopurua irakasgai horretan matrikulatutako ikasle kopuruarekin biderkatzen da eta biderketa guztien emaitzen batuketa egiten da. Batuketa horren emaitza euskaraz guztira matrikulatutako ECTS kreditu kopurua da. Hasierako datua 2016/17 ikasturtekoa da. Kalkulua: Graduan euskaraz matrikulatutako ECTS kredituen kopurua / graduan matrikulatutako ECTS kredituen kopurua.
8	II	Graduko ikasketetan euskaraz eskaintako ECTS kredituen ehunekoa (%) neurtzen du adierazle honek. Neurketatik salbuetsita daude hizkuntza aztergai duten graduak (Ingeles Ikasketako Gradua, Euskal Ikasketetako Gradua, Filologiako Gradua eta Itzulpengintza eta Interpretazioko Gradua) eta esperientzien gelak. Hasierako datua 2016/17 ikasturtekoa da. Kalkulua: Graduan euskaraz eskaintzen diren ECTS kredituen kopurua / Graduko ikasketa plan guztien ECTS kreditu kopurua.
9	II	Graduko ikasketetan lehen aldiz matrikulatzen direnen artean, euskaraz matrikulatu diren ikasleen ehunekoa (%) neurtzen du adierazle honek. Hasierako datua 2016/17 ikasturtekoa da. Kalkulua: Graduan lehen aldiz eta euskaraz matrikulatu diren ikasleen kopurua / Graduan lehen aldiz matrikulatu diren ikasleen kopurua.

10	II	Graduko ikasketetan matrikulatu direnen artean, euskaraz matrikulatu diren ikasleen ehunekoa (%) neurtzen du adierazle honek. Hasierako datua 2016/17 ikasturtekoa da. Kalkulua: Graduan euskaraz matrikulatu diren ikasleen kopurua / Graduan matrikulatu diren ikasleen kopurua.
11	II	Master ofizialetan euskaraz eskaintako ECTS kredituen ehunekoa (%) neurtzen du adierazle honek. Hasierako datua 2016/17 ikasturtekoa da. Kalkulua: Master ofizialetan euskaraz eskaintzen diren ECTS kredituen kopurua / Master ofizialetako ikasketen plan guztien ECTS kreditu kopurua.
12	III	UPV/EHUko argitalpen zerbitzuak argitaratutako euskarazko argitalpenen kopurua neurtzen du adierazle honek. Zehazki, UPV/EHUko argitalpen zerbitzuak euskara hutsean argitaratzen dituen unibertsitate testuen, bildumen, sailen, aldizkarien eta monografiaren aleak zenbatzen dira adierazle honetan. Hasierako datua 2017. urteko abendukoa da. Kalkulua: Urtean zehar UPV/EHUko argitalpen zerbitzuaren euskarazko argitalpenak.
13	IV	UPV/EHUUn euskaraz egindako doktorego tesien ehunekoa (%) neurtzen du adierazle honek. Hasierako datua 2017/18 ikasturteko datua da. Ez da 2016/17ko datua hartu izan ere ikasturte horretan doktorego programen aldaketak eraginda ohikoa ez den tesi kopurua irakurri zen. Kalkulua: Ikasturtean zehar euskaraz egindako doktorego tesien kopurua / ikasturtean zehar egindako doktorego tesien kopurua.
14	IV	UPV/EHUUn euskaraz egindako doktorego tesien artean nazioartekoak izan diren doktorego tesien ehunekoa (%) neurtzen du adierazle honek. Hasierako datua 2017/18 ikasturteko datua da. Ez da 2016/17ko datua hartu izan ere ikasturte horretan doktorego programen aldaketak eraginda ohikoa ez den tesi kopurua irakurri zen. Kalkulua: Ikasturtean zehar euskaraz egindako doktorego tesien artean nazioartekoak izan diren doktorego tesien kopurua / ikasturtean zehar euskaraz egindako doktorego tesien kopurua.
15	IV	Urtean zehar UPV/EHUko ikertzaileek aldizkari zientifikoetan euskaraz argitaratutako artikuluen kopurua neurtzen du adierazle honek. Datuak Inguma datu-basetik erauziko dira. Urte bati dagokion datua emateko hurrengo urteko abendura arte itxaron beharko da, izan ere, euskaraz egindako produkzio zientifiko guztia datu-basean kargatzeko denbora behar da. Hasierako datua 2017. urtekoa da. Kalkulua: Urtean zehar Inguma datu-basean jasota dauden aldizkari zientifikoetan UPV/EHUko ikertzaileek euskaraz argitaratutako artikuluen kopurua.

Bestalde, graduko euskarazko irakas-eskaintzari dagokionez, helburu nagusiak dira gradu guztietan derrigorrezko irakasgaiak euskaraz eskaintzea eta ahalik eta gradu gehienak osorik euskaraz ikasi ahal izatea. Gradu bakoitzarentzat plangintzaldiaren bukaerarako helburu izango den eredu linguistikoa jarraian azaltzen diren tauletan ikusi daiteke. Helburua zehaztetik salbuetsi dira hizkuntza aztergai duten graduak (Ingeles Ikasketetako gradua, Euskal Ikasketetako gradua, Filologiako gradua eta Itzulpenegintza eta Interpretazioko gradua).

## 5.2. Graduko euskarazko irakas-eskaintza

### Arabako Campusa

Graduaren izena	Hizkuntza-eredua 2013-2017	Hizkuntza-eredua 2018-2022
Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradua	C	D
Elikagaien Zientzia eta Teknologiako Gradua	B	B-C

Ingurumen Zientzietako Gradua	D	D
Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua	D	D
Haur Hezkuntzako Gradua	D+	D+
Lehen Hezkuntzako Gradua	D+	D+
Farmaziako Gradua	C	D
Geografiako eta Lurralde Antolakuntzako Gradua	D	D
Historiako Gradua	D	D
Artearen Historiako Gradua	C	D
Industriaren Elektronikaren eta Automatikaren Ingeniaritzako Gradua	A	A-B
Automobilgintzaren Ingeniaritzako Gradua	-	B
Rudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritzako Gradua	A	A
Ingeniaritza Mekanikoko Gradua	C	C
Ingeniaritza Kimikoko Gradua	B	B
Giza Nutrizioko eta Dietetikako Gradua	C	D
Gizarte Langintzako Gradua	D	D

### *Bizkaia*ko Campusa

<b>Graduaren izena</b>	<b>Hizkuntza-eredua 2013-2017</b>	<b>Hizkuntza-eredua 2018-2022</b>
Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradua	C-D	D
Arteko Gradua	C	D
Biologiako Gradua	D	D
Biokimikako eta Biologia Molekularreko Gradua	B-C	C
Bioteknologiako Gradua	B-C	C
Politika Zientziako eta Kudeaketa Publikoko Gradua	D	D
Ikus-entzunezko Komunikazioko Gradua	D	D
Kultura Ondareen Kontserbazio eta Zaharberritzeari buruzko Gradua	C	C
Sorkuntza eta Diseinuko Gradua	C	D
Ekonomiako Gradua	C-D	D
Haur Hezkuntzako Gradua	D+	D+

Lehen Hezkuntzako Gradua	D+	D+
Gizarte Hezkuntzako Gradua	D+	D+
Erizaintzako Gradua	D	D
Zerga Sistemako eta Administrazio Publikoko Gradua	B	C
Fisioterapiako Gradua	C	D
Fisikako Gradua	D	D
Geologiako Gradua	D	D
Negozien Kudeaketako Gradua	D	D
Ingurumen Ingeniaritzako Gradua	B	C
Ingeniaritza Zibileko Gradua	D	D
Meatzaritza eta Energia Teknologiarengatik Ingeniaritzako Gradua (desagertzeaz 2018-19tik aurrera)	D	D
Ingeniaritza Elektronikoko Gradua	C	D
Industria Elektronikaren eta Automatikaren Ingeniaritzako Gradua	D	D
Ingeniaritza Elektrikoko Gradua	D	D
Industria Antolakuntzaren Ingeniaritzako Gradua	C	C
Telekomunikazio Teknologiarengatik Ingeniaritzako Gradua	C	C
Industria Teknologiarengatik Ingeniaritzako Gradua	D	D
Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritzako Gradua	D	D
Ingeniaritza Mekanikoko Gradua	D	D
Ingeniaritza Kimikoko Gradua	D	D
Itsasketako Gradua	B	B
Marketineko Gradua	D	D
Matematikako Gradua	D	D
Medikuntzako Gradua (Basurto, Gurutzeta, Donostia)	-	D
Nautika eta Itsas Garraioko Gradua	B	B
Odontologiako Gradua	B	B

Kazetaritzako Gradua	D	D
Publizitateko eta Harreman Publikoetako Gradua	D	D
Kimikako Gradua	D	D
Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua	C	D
Soziologiako Gradua	D	D

### *Gipuzkoako Campusa*

<b>Graduaren izena</b>	<b>Hizkuntza-eredua 2013-2017</b>	<b>Hizkuntza-eredua 2018-2022</b>
Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradua	D	D
Gizarte Antropologiako Gradua	D	D
Arkitektura Teknikoko Gradua	D	D
Kriminologiako Gradua	C	D
Zuzenbideko Gradua	D	D
Haur Hezkuntzako Gradua	D+	D+
Lehen Hezkuntzako Gradua	D+	D+
Gizarte Hezkuntzako Gradua	D	D
Erizaintzako Gradua	D	D
Filosofiako Gradua	D	D
Arkitekturaren Oinarrietako Gradua	D	D
Industria Elektronikaren eta Automatikaren Ingeniaritzako Gradua	D	D
Ingeniaritza Zibileko Gradua	C	D
Energia Berriztagarrien Ingeniaritzako Gradua	D	D
Ingeniaritza Elektrikoko Gradua	D	D
Informatikaren Ingeniaritzako Gradua	D	D
Ingeniaritza Mekanikoko Gradua	D	D
Pedagogiako Gradua	D	D
Psikologiako Gradua	D	D
Kimikako Gradua	D	D

Medikuntzako graduaren bigarren zikloaren ebaluaziorako helburuak zehazterakoan oso garrantzitsua da unibertsitate-ospitaletan ematen den irakaskuntza honen berezitasunak presente izatea:

- Irakaskuntza ematen den ospitalean lanean dauden eta euskararen C1 maila duten mediku espezialista kopuruaren menpe dago euskaraz irakasteko irakasleen kontratazioa.
- Irakasgai bakoitzaren atal espezifikoak emateko atal horretan espezialista den medikua kontratatzea beharrezkoa da. Ondorioz, irakasgaiak dituen atal espezifiko adina irakasle beharko dira irakasgaia emateko.
- Irakasgaiaren praktika klinikoak emateko irakasgaiarako kontratatutako irakasle espezialistaz gain, ospitalean lanean dauden beste mediku espezialisten kolaborazioa beharrezkoa da. Kolaborazio hori *Venia Docendi* bidez aitortzen zaie.

Berezitasun nagusi horiek eta unibertsitate-ospitaletako irakaskuntza unitate bakoitzaren (Basurto, Galdakao, Gurutzeta, Donostia, Txagorritxu) egungo egoera kontuan izanda ondorengo erronkak zehazten dira:

- Bost irakaskuntza unitateetan, euskaraz irakasteko gaitasuna duen irakasle plantilla handitu dadin, euskararen C1 maila duten mediku espezialistak identifikatu eta ateratzen diren irakasle plazetan kontratatu.
- Galdakaoko ospitalerako irakasle plaza guztiei euskara eskakizuna jartzea (arrazoitutako salbuespenak aztertuak izango dira) .
- Bost irakaskuntza unitateetan, irakasle kontraturik ez duten eta gutxienez euskararen B2 maila duten mediku espezialistak identifikatu eta sailei proposatu irakasgaiaren praktika klinikoetan instruktore bezala aritu daitezten. Irakaskuntza hori *Venia Docendi* bidez aitortuko zaie.
- Bost irakaskuntza unitateetan, *Venia Docendi* bidez aitortzen diren praktika klinikoetan Barneko Medikuek Erresidenteek (BAME) parte hartzea bultzatu.
- Planaren bukaerarako Basurto, Gurutzeta eta Donostiako irakaskuntza unitateetako irakasgai guztiak euskaraz eskaini.

Graduetarako zehaztutako hizkuntza ereduak betetzen ez diren kasuetan, Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzak hizkuntza ereduaren betetze-mailari buruzko txostena bidaliko die inplikaturako sailei, ikastegiei eta Irakasle-Ikertzaielen arloko Errektoreordetzari honako informazio honekin:

- Graduaren izena.
- Hizkuntza ereduaren betetze-maila.
- Euskaraz eskaintzen ez diren irakasgaiak.
- Euskaraz eskaintzen ez diren irakasgaien arduradunak diren sailen izena.

Adierazle orokorrez eta graduatarako ezarritako helburuen urteroko jarraipenaz gain, 86/1997 Dekretuaren 19. artikuluan aipatzen dena jarraituz, plangintzaldiaren bigarren urtea betetakoan, ebaluazio-txostena egingo da. Txosten horrek antzemandako hutsune eta zailtasunen ondorioz beharrezkoak diren berrazterketak egitea izango du helburu. Azterketa hori egiteko Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko V. plangintzaldiaren amaierako ebaluazioan erabilitako metodologia jarraituko da. Era berean, Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzak Euskara Batzordean aurkeztuko du III. Plan honetan zehaztutako ekimenetan oinarritutako urteroko ekintza plana.

## 6.

### Euskararen III. Plan Gidariaren (2018-2022) garapenerako finantzaketa

Plan honetan jasota dauden ekimenak garatu ahal izateko, Euskal Herriko Unibertsitateak bere aurrekontutik bideratuko ditu beharko diren baliabideak. Baliabide horiek 2018. eta 2022. urteen bitartean bideratuko dira bi iturri nagusitik, UPV/EHUko ohiko aurrekontutik eta, batez ere, kontratu-programatik.



# I. Eranskina

## Euskarazko administrazio-atalak

	Atal administratiboak	Lanpostu kopurua	Derrigortasun-datak (%)	HE egiaztatuta (%)	Atalburu euskalduna	IRI plaza elebidunak
U022	Aldezlea	2	100,00%	100,00%	Bai	
U0002	Arabako Campuseko Errektoreordetza	1	100,00%	100,00%	Bai	
312	Aurrekontuetarako zerbitzua	2	100,00%	100,00%	Bai	
187	Berdintasunerako zuzendaritza	1	100,00%	100,00%	Bai	
185	Bestelako berrikuntza postuak	2	100,00%	100,00%	Bai	
U383	Biofisika Unitatea	1	100,00%	100,00%		
U004	Bizkaiko Campuseko Errektoreordetza	1	100,00%	100,00%	Bai	
2	Errektorearen kabinetea	9	100,00%	88,88%	Bai	
61	Euskara zerbitzua	8	100,00%	100,00%	Bai	
U003	Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetza	1	100,00%	100,00%	Bai	
62	Hizkuntza normalkuntza eta plangintza	3	100,00%	100,00%	Bai	
141	Ikasleen zuzendaritza	14	92,86%	92,86%	Bai	
313	Kanpoko Funtsen Gestio eta Kontrolaren Zerbitzua	3	100,00%	100,00%	Bai	
U278	Kriminologiaren Euskal Institutua	1	100,00%	100,00%		
U270	Materialen Fisika Zentroa	1	100,00%	100,00%		

## Administrazio-atal elebidunak

	Atal administratiboak	Lanpostu kopurua	Derrigortasun-datak (%)	HE egiaztatuta (%)	Atalburu euskalduna	IRI plaza elebidunak
91	Akademia Antolakuntza	45	73,33%	75,56%	Bai	
U034	Arabako Campuseko Gerenteordetza	30	80,00%	70,00%	Bai	
U081	Arabako Campuseko Biblioteka	25	72,00%	72,00%	Bai	
U240	Arkitektura Goi Eskola Teknikoa	15	93,30%	80,00%	Bai	61,80
U320	Arte Ederren Fakultatea	39	66,66%	66,66%	Bai	58,91
321	AZP-ren zerbitzua	13	69,23%	76,92%	Bai	
325	Ikasketa, Plangintza eta Prestakuntzako Kabinetea	3	66,66%	66,66%	Bai	
202	Barne kontrola	5	80,00%	100,00%	Bai	
U354	Bilboko Hezkuntza Fakultatea	19	89,50%	78,94%	Bai	89,44
C363	Bilboko Ingeniaritza Eskola II	29	79,31%	79,31%	Bai	53,79
U083	Bizkaiko Campuseko Biblioteka	35	88,57%	88,57%	Bai	
71	Enpresarekiko harremanak	10	60,00%	80,00%	Bai	
U125	Farmazia Fakultatea	31	67,70%	61,29%	Bai	60,26
U035	Gipuzkoako Campuseko Gerenteordetza	41	83,00%	83,00%	Bai	
U082	Gipuzkoako Campuseko Biblioteka	32	87,50%	87,50%	Bai	
C263	Gipuzkoako Ingenieritza Eskola (Donostia)	30	73,33%	80,00%	Bai	77,93
C264	Gipuzkoako Ingenieritza Eskola (Eibar)	10	80,00%	80,00%	Bai	69,70
U323	Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea	42	85,70%	83,33%	Bai	66,52
C135	Hezkuntza eta Kirol Fakultatea (Kirola)	12	91,66%	83,33%	Bai	67,24
C154	Hezkuntza eta Kirol Fakultatea (Hezkuntza)	12	91,66%	83,33%	Bai	94,38
C230	Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea I	19	94,73%	94,73%	Bai	76,72

C254	Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea II	12	100,00%	91,66%	Bai	96,25
12	Idazkaritza nagusiko koordinazioa	21	76,19%	87,50%	Bai	
U226	Informatika Fakultatea	17	88,20%	82,35%	Bai	52,58
0183	Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzua (SAE-HELAZ)	3	66,66%	66,66%	Bai	
322	II Pen zerbitzua	27	70,37%	81,48%	Bai	
181	Kalitate eta Ebaluazio Instituzionalerako Zerbitzua (KEIZ)	5	80,00%	80,00%	Bai	
U215	Kimika Fakultatea	19	78,90%	89,47%	Bai	53,95
C356	Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea (Leioa)	11	90,90%	63,63%	Bai	64,44
C160	Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea (Vitoria-Gasteiz)	6	100,00%	100,00%	Bai	80,65
C252	Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea (Donostiako irakasgunea)	12	83,33%	69,66%	Bai	79,31
C327	Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea (Medikuntza, Odontologia eta Fisioterapia)	58	74,13%	65,51%	Bai	52,10
201	Mugikortasunerako zuzendaritza	11	63,63%	90,90%	Bai	
323	Nominetarako zerbitzua	11	63,63%	63,63%	Bai	
411	Ondare Zerbitzua	3	66,66%	66,66%	Bai	
394	Produkzioa	43	60,46%	86,04%	Bai	
U231	Psikologia Fakultatea	17	76,47%	76,47%	Bai	68,52
395	Telefono komunikazioen zerbitzuak	23	73,91%	73,91%	Bai	

## Administrazioko beste unitate batzuk

	Atal administratiboak	Lanpostu kopurua	Derrigortasun datak (%)	HE egiaztatuta (%)	Atalburu euskalduna	IRI plaza elebidunak (%eusk. gazt.,CDB>0)
392	Bezeroen arloa	48	52,08%	91,66%	Ez	
C345	Bilboko Ingeniaritza Eskola I	63	77,77%	82,53%	Bai	39,94
C364	Bilboko Ingeniaritza Eskola II	13	69,23%	61,50%	Bai	42,11
C350	Bilboko Ingeniaritza Eskola, Portugalete	13	61,50%	38,47%	Bai	45,95
U036	Bizkaiko Campuseko Gerenteordetza	32	81,20%	75,00%	Ez	
184	Campus birtuala	4	50,00%	50,00%	Bai	
C251	Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Gipuzkoako atala)	11	81,81%	81,81%	Ez	66,22
C351	Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Elkano)	16	81,25%	50,00%	Bai	55,17
C321	Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Sarriko)	53	81,13%	81,13%	Bai	40,80
C151	Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Arabako atala)	7	71,42%	71,42%	Ez	80,00
U163	Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskola	20	65,00%	75,00%	Ez	40,20
U030	Gerentzia	37	5,40%	20,00%	Bai	
186	Gizarte erantzukizunerako zuzendaritza	4	25,00%	50,00%	Bai	
U070	Gizarte Kontseilua	3	100,00%	100,00%	Ez	
93	Graduondoko ikasketen zerbitzua	17	70,58%	52,94%	Bai	
87	Ikerkuntzako kudeaketa ekonomikoa	7	42,85%	42,85%	Ez	
84	Ikerkuntzako unitatearen zuzendaritza	39	64,88%	82,05%	Ez	
182	Irakaslan Ebaluatzeko Zerbitzua	4	50,00%	50,00%	Bai	
U010	Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordea	8	50,00%	37,50%	Bai	
U038	Odontologia Klinika	9	44,44%	44,44%	Ez	
310	Kontabilitaterako zerbitzua	23	39,13%	60,86%	Bai	

413	Kontratatorako eta erosketetarako zerbitzua	18	44,44%	72,22%	Ez	
391	Rudeaketa Informatikarako Zentroa (RIZ)	22	45,45%	59,09%	Bai	
U130	Letren Fakultatea	25	80,00%	80,00%	Bai	33,92
C352	Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea (Erizaintza Leioa)	12	75,00%	58,83%	Bai	62,71
U061	Miguel de Unamuno Ikastetxe Nagusia	5	20,00%	20,00%	Bai	
86	Nazioarteko I+G bulegoaren zuzendaritza	4	50,00%	75,00%	Bai	
324	Prebentzio Zerbitzua	14	50,00%	64,28%	Bai	
393	Proiektuak	17	41,17%	70,59%	Bai	
188	Psikologia aplikatuaren zerbitzuko zuzendaritza (SPA/PAZ)	0	0,00%	0,00%	Bai	
82	SGIKERen zuzendaritza	29	6,89%	55,17%	Ez	
U080	Unibertsitateko Biblioteka	9	55,50%	66,66%	Ez	
63	Argitalpen Zerbitzua	17	47,05%	64,71%	Bai	
U310	Zientzia eta Teknologia Fakultatea	58	63,80%	62,06%	Bai	49,24
C324	Zuzenbide Fakultatea (Bizkaiko Campusa)	7	83,33%	100,00%	Ez	65,85
C224	Zuzenbide Fakultatea (Gipuzkoako Campusa)	20	85,00%	85,00%	Ez	52,94

## II. Eranskina

### Hizkuntza eskakizunaren aldaketa proposatzen diren lanpostu ez bakanteak

Lanpostuaren izena	Zein ikastegi/sailetara atxikia	Taldea	Maila	Hor.	HE eta data	Campusa
Bulegoko burua	Odontologia Klinika	C/D	19	45	2.14/01	3
	Arkitektura GET	C/D	19	12	2.94/1	2
	Bilboko Irakasleen UE	C/D	19	28	2.12/02	3
	Bilboko Ingeniaritza Eskola	C/D	19	25	2.02/12	3
				31	2.95/1	3
	Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola	C/D	19	16	2.94/10	2
				17	2.95/1	2
	Arte Ederren Fakultatea	C/D	19	19	2.98/12	3
	Zientzia eta Teknologia Fakultatea	C/D	19	18	2.14/01	3
	Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea	C/D	19	22	2.02/12	3
	Zuzenbide Fakultatea	C/D	19	8	2.95/1	2
	Ekonomia eta Enpresa Fakultatea	C/D	19	13	2.94/10	2
	Hezkuntza eta Kirol Fakultatea	C/D	19	4	2.14/01	1
				32	2.12/02	1
	Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea	C/D	19	10	2.98/12	2
	Informatika Fakultatea	C/D	19	9	2	2
	Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea	C/D	19	14	2	2
				27	2.02/12	3
	Idazkaritza Nagusia	C/D	19	34	2.94/10	3
				35	2.96/10	3
	Bizkaiko Campuseko Gerenteordetza	C/D	19	33	2.02/12	3
	Gipuzkoako Campuseko Gerenteordetza	C/D	19	36	2.95/1	2
	Kontabilitate eta Aurrekontuen Gerenteordetza	C/D	19	38	2	3
Pertsonaleko Gerenteordetza	C/D	19	39	2	3	
			43	2.00/12	3	
			58	2.09/09	3	
			59	2.15/09	3	
Graduko eta Graduondoko Ikasketen Arloko Errektoreordetza	C/D	19	46	2.94/1	3	
			47	2.95/1	3	
			48	2.17/12	3	
			49	2.14/01	3	
			51	2.95/1	3	
			54	2.09/1	3	
			55	2.09/1	3	
			56	2.09/1	3	
57	2	3				
62	2.11/06	3				
Arloko arduraduna	Bilboko Ingeniaritza Eskola	C	20	7	2.15/09	3
	Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea	C	20	5	2.09/09	3
	Zuzenbide Fakultatea	C	20	2	2.12/12	3
	Letren Fakultatea	C	20	1	2.12/12	1

# III. Eranskina

## Derrigortasun datarik gabeko lanpostu ez bakanteak

Campusa	Ikastegia	Lanpostuaren izena	Taldea	Maila	Hor.	H.E.	
Araba	Farmazia Fakultatea	Laborategiko ofiziala	III	18	7	2	
		Laborategiko teknikari espezialista	III	21	7	2	
	Letren Fakultatea	Administrari orokorra	C/D	18	6	2	
		Mantentze laneko ofiziala	III	19	20	2	
		Saileko idazkaria	C/D	18	23	2	
Gipuzkoa	Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola	Ikastegiaren mantentzailea	IV	16	2	2	
	Zuzenbide Fakultatea	Administrari laguntzailea	D	16	16	2	
	Psikologia Fakultatea	Karguaren idazkaria (ikastegiak)	C/D	18	11	2	
	Gipuzkoako Campuseko Gerenteordetza	Mantentze laneko ofiziala	III	19	25	2	
		Kiroletako teknikaria	II	21	2	3	
	Informazio Eta Komunikazio Teknologien Gerenteordetza	Proiektuetako buru eta Gipuzkoako koordinatzaile	I	28	1	3	
Bizkaia	Bizkaiko Campuseko Biblioteka	Bibliotekako laguntzailea	B	21	16	3	
		Bibliotekako atalaren arduraduna	B	22	15	3	
	Miguel De Unamuno Ikastetxe Nagusia	Garbiketa eta arropa ikuzketaren kontrolatzailea	IV	14	1	1	
		Mantentze laneko ofiziala	III	19	19	2	
	Bilboko Irakasleen UE	Koordinatzailea	B/C	22	6	3	
		Bilboko Ingeniaritza Eskola	Bibliotekako laguntzailea	B	21	32	3
			Ikastegiko bibliotekaren arduraduna	B	23	15	3
			Saileko idazkaria	C/D	18	20	3
	Arte Ederren Fakultatea	Laborategiko teknikari espezialista	III	21	21	2	
		Arte eta gorpuzt adierazpideko ofizialen koordinatzailea	III/IV	17	1	1	
		Arte eta gorpuzt adierazpideko ofiziala	III/IV	17	5	1	
	Zientzia eta Teknologia Fakultatea	Koordinatzailea	Laborategiko ofiziala	III	18	2	3
			Saileko idazkaria	C/D	18	31	2
		Irakaskuntzan eta ikerketan laguntzeko teknikaria	Laborategiko teknikari espezialista	I/II	24	58	2
			Laborategiko teknikari espezialista	III	21	96	2
			Laborategiko teknikari espezialista	III	21	104	2
		Zuzenbide Fakultatea	Administrari laguntzailea	D	16	20	2
	Ekonomia eta Enpresa Fakultatea	Administrari laguntzailea	D	16	119	2	
		Bibliotekako laguntzailea	B	21	28	3	
		Saileko idazkaria	C/D	18	26	2	
	Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea	Administrari laguntzailea	D	16	272	2	
		Saileko idazkaria	Laborategiko teknikari espezialista	C/D	18	43	2
			Laborategiko teknikari espezialista	C/D	18	45	2
			Laborategiko teknikari espezialista	C/D	18	92	2
	Irakaskuntzan eta ikerketan laguntzeko teknikaria	I/II	24	5	3		
	Gerentzia	Mantentze laneko ofiziala	III	19	6	2	
			III	19	12	2	
	Idazkaritza Nagusia	Abokatu aholkularia	A	28	2	4	
		Teknikari abokatua	A	24	1	3	
	Bizkaiko Campuseko Gerenteordetza	Kiroletako teknikaria	II	21	4	3	
Kontabilitate eta Aurrekontuen Gerenteordetza	Administrari laguntzailea	D	16	179	2		
	Kontabilitateko administrari laguntzaile	D	17	180	2		
Ondare eta Kontratazioko Gerenteordetza	Zerbitzu, lan eta ekipamenduen administraria	C/D	18	3	2		
	Postako laguntzailea	E	14	1	1		
Pertsonaleko Gerenteordetza	Administrari orokorra	C/D	18	2	2		
	Administrari laguntzailea	D	16	191	2		
		D	16	194	2		
		D	16	197	2		
Teknikari abokatua	A	24	3	3			
	A	24	3	3			
Informazio eta Komunikazio Teknologien Gerenteordetza	GIGko burua	I	28	1	3		
	IKZren arduraduna	I	26	1	3		
Koordinazioaren eta Nazioarteko Harremanen Arloko Errektoreordetza	Barne Kontrolleko Zerbitzuko burua	A	27	1	3		
Garapen Zientifikoaren eta Transferentziaren Arloko Errektoreordetza	Administrari laguntzailea	D	16	165	2		
Graduko eta Graduondoko Ikasketen Arloko Errektoreordea	Administrari laguntzailea	D	16	225	2		
	Laguntza eta Deialdien Ataleko buru	B/C	22	238	2		
Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren Arloko Errektoreordetza.	Ikus Entzunezkoetako teknikaria	II	21	1	3		